

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BIZKAIKO  
ESPERIENTZIA  
GELAK  
AULAS DE LA  
EXPERIENCIA  
DE BIZKAIA**

**IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA:** [HISTORIA ECONÓMICA DE EUSKAL HERRIA](#)

**Irakaslea/Profesora:** **Yolanda Jubeto Ruiz**

**Irakasgaiaren azalpena/**Descripción de la asignatura

Irakasgai honen helburua Euskal Herriko historiara hurbilketa egitea da, hastapenetatik (historiaurretik) gaur egunera arte, bizirauteko eta aparteko kultura ekonomikoa garatzeko erabilitako bizibideak aztertuz. Prozesu horretan, eskura zituzten baliabide naturalak eta giza trebetasun eta sormenaren bidez erabilitako teknikak funtsezkoak izan dira. Era berean, emakumeek egitura ekonomikoan izan duten zeregina nabarmentzen da, baita gobernatzeko eta inguruko herrialdeekin harremanak sortzeko modu berezi bat ekarri duten erakundeak sortzearen garrantzia ere. Ez dugu ahaztu behar hedapen kolonialak gure bilakaera ekonomikoan izan duen eragina azken bost mendeetan.

**Gaitasunak/**Competencias

Ikasleek behar adina baliabide dituzte (material bibliografiko eta ikus-entzunezko material zabala hornitzen da) denboran zehar nazioarteko testuinguru konplexuan Euskal Herriaren historia ekonomikoa modu zabalean eta estereotiporik gabe aztertzeko.

Irakasgaiak Euskal Herriko historia ekonomikoan izandako gertaera garrantzitsuak aztertzeko ikasleen gaitasuna garatzen du.

Era berean, interesa pizten du eskuarki oso azaletik jorratutako gertakarien inguruan, baita gure historian ezezagunak diren gertakarien inguruan ere.

## **Edukiak/Contenidos**

Ikastaroa euskal historiaurrearen sarrera labur batekin hasiko da, gaur egungo ikerketa arkeologikoen lurraldeko jatorrizko biztanleen bizimoduari buruz azaltzen digutena ezagutzeko. Hortik abiatuta, erromatarren eragina aztertuko dugu, eta, erromatar inperioaren kolapsoaren ondoren, Antzinate Berantiarrean penintsulara iritsi ziren herrialde godo eta musulmanekin izandako harremanak eta horiek gure gizartean eta harreman sozioekonomikoetan Erdi Aroan izan zuten eragina. Jarraian, Iruñeko eta ondoren Nafarroako Erresumaren eraketan murgilduko gara, euskal lurraldearen bilakaera, antolaketa sozioekonomikoa, ikusteko, hau da, bizibideak eta gizarte hierarkiak ikusteko.

Amerikarren konkistaren ostean, euskal eliteak Sevillako eta Ameriketako botere gune ekonomikoetan izan zuen eginkizuna aztertuko dugu, baita Europan eta munduan boterea eskuratu nahian auzitan zebiltzan estatu sortu berrien arteko harreman konplexuak ere. Garai hark aldaketa handiak eragin zituen euskal nekazaritzaren eta arrantzaren ekoizpen sisteman, eta, ondorioz, bertako biztanleen elikaduran, baita nazioarteko merkataritzan eta euskal marinelek eta merkatariek sistema horretan zuten zereginean ere.

Modernitatean zehar aztertuko ditugu burgesiaren eraketa lurralde ezberdinetan eta frantziar iraultzaren eta ondoren etorritako frantziar erasoaldien eragina eta horien ondorioak, espainiar monarkiak eta euskal eta espainiar liberalismoak euskal Foruak etengabe zalantzan jartzen zituzten garaian. Horrez gain, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eskutik iraultza zientifikoak eta teknoindustrialak XVIII. mendearen amaieran Euskal Herrira nola iritsi ziren ere aztertuko dugu, baita karlistaldien kausak eta ondorioak ere, XIX. mende nahasian.

Foraltasunaren amaierak, ordura arte bizi zen bezala, liberalizazio ekonomikoak eta Hitzarmen ekonomikoen eta Ekonomia Itunen sistema ezartzeak, nafar eta euskal sistemak, hurrenez hurren, bide eman zioten euskal industria eta finantza sarearen kapitalizazioari eta eraketari, Bizkaiaren kasuan oligarkia deitu zitzaionari, hasiera batean kostaldeko lurraldeetan garatu zenari. Prozesu horren ondorioz, euskal nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako egitura tradizionala bigarren maila batean geratu zen eta horren ordean industria handi bat bultzatu zen, oso estraktibista eta kutsatzailea zena, eskulan handia eskatzen zuena (migrazio prozesu handiak) eta euskal lurraldea eta gizartea nabarmen aldatu zituen. XX. mendea aztertzen dugunean, eta berriz ere faktore politikoek baldintzatuta, honako hauen eginkizuna aztertuko dugu: langile mugimendua, erakunde feministak emantzipazioaren aldeko borrokan eta euskal kooperatibismoa. Gai zerrenda amaitzeko, 70eko eta 80ko hamarkadetakoa eta XXI. mendearen lehen hamarkadako (batez ere 2008koa) krisi ekonomikoen ondorioak azalduko ditugu eta laburpen bat egingo dugu azken hamarkadetan euskal ekonomia hirugarren sektorerara bihurtzeari eta harrezkero izan ditugun erronka nagusiei buruz.

Ezin dugu ahaztu zazpi euskal lurraldeek bilakaera berezia izan dutela, eta, beraz, euskal barne aniztasun horren gako batzuk identifikatzen ere ahaleginduko gara.

### **Metodologia/**Metodología

Gai zerrenda zabala dela eta eskolak laburrak direla kontuan hartuta, metodologia eskola magistraletan datza nagusiki, gai bakoitzean egelara igotzen diren irakurketei buruzko gogoetekin osatuta, ikasleek gehien interesatzen zaizkien gaietan sakondu ahal izan dezaten. Gainera, dokumentalak ere gomendatzen ditugu, historiako garai jakin batzuen aurrean, ikasleek ilustratzeko aukera izan dezaten eskoletara etorri aurretik. Horri esker, ikasleen parte hartzeak gora egiten du saio batzuetan eta eskola batzuk parte hartzaileagoak dira. Erabilitako irakaskuntza metodoaren barruan jasota dago, halaber, ikasleak motibatzen dituen eta gai zerrendarekin lotuta dagoen gairen bati buruz lan laburren bat prestatzeko interes eta denbora libre handiagoa duten ikasleek saiakera labur bat idatzi ahal izatea eta, apropos eta egokitzat jotzen bada, ikasgelan azaletik aurkeztea. Ekarpen horiek aukera ematen dute galdera batzuk egiteko eta ikaskuntza prozesuari dinamismo handiagoa emateko.

Metodologiaren funtsezko elementua da ikasleek egela erabiltzea. Plataformara ikasgelan helarazitako informazio guztia igotzen da, baita sarean libreki zabaltzekoak izateagatik partekatu daitezkeen jorratutako gairako interesgarriak diren irakurketa eta erreferentzia osagarri guztiak ere. Ikasleek egindako lanak ere eskuragarri daude hor.

### **Ebaluazio sistema/** Sistema de evaluación

Irakasgai hau gainditzeko, funtsezkoa da eskoletara joatea. UPV/EHUko Esperientzia Gela sistemak ikasgelako hutsegiteen gehieneko mugak ezartzen ditu eta horiek irakasgai honetan ere aplikatzen dira.

Ikasleek ikasgelan parte hartzeko aukerak mugatuak badira ere, denbora faltagatik batez ere, ikasturtean zehar tarte bat gordetzen da eskola batzuetan ikaskuntzak, galderak eta zalantzak partekatzeko eta ikasleek materialak ekartzeko taldeak gozatu ditzan. Gainera, saiakera laburrak egitea eta ikasgelan aurkeztea, borondatez betiere, positibotzat jotzen da amaierako nota jartzerakoan.

Laburbilduz, behin eskoletara bertaratzearen irizpidea beteta, kontuan hartzen da ikasleen jarrera aktiboa eta parte hartzailea (taldeko ahotsen oreka errespetatzen duena) eta positiboki baloratzen da ikastaroaren amaierako nota jartzerakoan.

## **Bibliografía/Bibliografía básica**

AGIRREAZKUENAGA, Joseba, Mikel URQUIJO y María José VILLA (arg.) (2020): ***Mujeres de vanguardia en Bilbo (1800-1936)***. UPV/EHU.

ÁLVAREZ LLANO, Roberto G. (2008): ***Historia económica del País Vasco-Navarro. De los orígenes hasta comienzos del siglo XXI***. Bilbo.

ASIRON, Joseba (2014): "De la prehistoria a la romanización". ***Historia Ilustrada de Euskal Herria***. Txalaparta.

ASIRON, Joseba (2015): "Reino de Navarra: del sueño a la conquista". ***Historia Ilustrada de Euskal Herria***. Txalaparta.

BARRUTIA Etxebarria, Xabier (2013): ***Altos Hornos de Vizcaya. Análisis crítico del cierre y testimonios vitales***. UPV/EHU.

BAZAN, Iñaki (Dir.) (2006): ***De Tubal a Aitor. Historia de Vasconia***. Arg. La esfera de los libros.

BRANCAS ESCARTIN, Marta (1998): ***Guía de mujeres de Bilbao. 700 años de Historia***. Bilboko Udala/Ayuntamiento de Bilbao

EKONOMIAZ (1988/89): "La economía vasca a través de la historia".

EKONOMIAZ (2020): ***Huella de la Gran Recesión en Euskadi. Impactos y retos principales del País***. Aniversario 35 urteurrena.

GALARZA, Arantzazu (1996): ***Los orígenes del empresariado vasco. Creación de sociedades e inversión de capital. Bilbo (1850-1882)***. Beitia.

GOYHENETXE, Eukeni (1985): ***Historia de Iparralde. Desde los orígenes a nuestros días***. Arg. Txertoa.

MARTINEZ BELOQUI, M<sup>a</sup> Sagrario (1999): ***Navarra, el Estado y la Ley de Modificación de Fueros de 1841***. Nafarroako Gobernua.

MERA, José Miguel eta José Miguel GAZTELU (2017): ***La huelga de bandas. Revisión en su 50 aniversario. 1959-1969, una década de tensión social y empresarial***. Ediciones Beta

URZAINQUI Mina, Tomás eta Juan M<sup>a</sup> OLAIZOLA (1998): ***La Navarra marítima***. Pamiela.

VITORES Casado, Imanol (2019): ***Poder, sociedad y fiscalidad en el Señorío de Vizcaya durante la Baja Edad Media***. IVAP.